

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroa Adimen Artifizialean posizionatu da

Berrikitan, NASERTIC enpresa publikoak POWER9 prozesagailuak dituen IBM Power systems AC922 zerbitzari berria erosi du

Ostirala, 2018.eko otsailak 23

IBM POWER9 prozesagailu berria Adimen Artifizialeko inguruneetan errendimendu arloko hobekuntza garrantzitsuak sustatzeko eta enpresa-ingurunean berrikuntza errazteko xedez diseinatu da.

NASERTICeko lehendakaria den Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta

Justiziako kontseilari María José Beaumontek gaur goizean, Nafarroako Gobernuak azpiegitura honetara egindako bisitan nabarmendu duenez “zerbitzari berri hau abian dauden Nafarroa Smart bezalako proiektuetan erabiliko da beste hainbat aplikazioen artean, Smart Territories, Turismo adimenduna eta Telemedikuntza gisako jarduera-eremuetan zehazkiago esanda, eta NAGEN 1000 proiektuaren barnean erabiltzen ari da dagoeneko”. Nafarroa Biomed eta Nafarroako Ospitaleguna buru eta NASERTIC eta Avantia bazkide dituen estatu mailako ekimen aitzindari honen bidez, giza-genoma osoa aztertzeo teknologiarik abanguardistenak Nafarroako osasun-sare publikora hedatu nahi da, 1.000 pazienteren analisi genetikoa eginez. Nafarroako Gobernuak 2017-2019ko I+G proiektu estrategikoen deialdiaren barruan finantzatu duen [NAGEN 1000 deritzonaren](#) barnean, datu genomikoak kopuru handietan, ingurune seguruan eta dagokien lege-esparruari atxikita biltegitatu eta prozesatzen lagunduko duten informazio eta konputazioko teknologiak garatzea aurreikusi da.

NASERTICek kudeatzen duen zerbitzari berria Nafarroako Gobernuaren Datuak Prozesatzeko Zentroan kokatuta dago eta [ADITECHen](#) parte hartzen duten Nafarroako Zentro Teknologikoekin nahiz enpresa publikoekin ([Nafarroa Biomed](#), [CPEN](#), etab.,) partekatu ahal izango da, hauek hala eskatuz gero.



NASERTICeko lehendakariak eta Beaumont kontseilariak egindako bisitan

Iñaki Pinillos
NASERTICEko Zuzendari
Gerenteak adierazi duenez
"IBM POWER9 Adimen

Artifizialeko lan-karga trinkoei
aurre egiteko berriaz diseinatuta dago eta Deep Learning-eko
framework-en trebatze-denborak lauz biderkatuta hobetzeko
(egunetatik orduetara) gaitasuna du, Adimen Artifizialeko
aplikazioak azkarrago eraikitzeke aukera eskainiz. Gainera,
POWER9, Estatu Batuetako Energia Departamentua eraikitzen
ari den "Summit" eta "Sierra" bezalako munduko etorkizuneko
superkonputagailurik indartsuenen oinarria da".



Talde berriaren aurkezpena